

2. AKTA

OHIKO UDALBATZA, 2006ko urtarrilaren 31n izandakoa.

NON: Pasaiako Hirian eta Udaletxean.

NOIZ: Bi mila eta seiko urtarrilaren hogeita hamaikan.

Bilkura buru Izaskun Gómez Cermeño alkatea dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta behin-behineko idazkaria bertan dela, ondorengo zinegotziak etorri dira

PSE-EE-tik

Lore Suárez Linazasoro a.

Lucía Querido Noceti a.

Rafaela Romero Pozo a. eta

Juan Manuel Domínguez López j.

EAJ-tik

José Luis Goikoetxea Garmendia j.

José Manuel Anso Martínez j.

Juan Ignacio Lasurtegi Berridi j. eta

Joaquín Martínez Vidal j.

EA-tik

Miriam Cano Puy a. eta

Aitor Larrañga Burguera

PP-tik

Guillermo Sánchez-Berra Quintana j. eta

José Luis Mtez. de Espronceda Luiña

EB-tik

Jesús M^a García Garde j. eta

Fco. Javier Pombo González j.



Ezohiko bilkura egiteko elkartu dira goian izendatu ditugunak, zehaztutako data eta tokian, aurretik bidali zaien bilera-deiari jarraiki. Bere ezin etorria justifikatzen du Marivi Roteta a. EAko zinegotziak gaixorik baitago. Juan Ramon Gonzalez Medrano j. atxiki gabeko zinegotziak ez du bere ezin etorria justifikatu. Halaber, bilkura honetan izan da behin-behineko kontuhartzailea Karmele Lizaso Ubera andrea.

Bilkura buruak ikusi du batzordekide aski badagoela Udalbatza eratzeko eta bilkurari hasiera eman dio 9:00etan; ondoren gai-zerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekin zaio.

1.- Aurreko batzarraldiko akta 13.a 05-12-23koa irakurri eta onartzea.

Goiburuan aipatzen den akta aztertu ondoren, bertaratuek adostasunez (PP alderdiko zinegotziek izan ezik, bilera hartan egon ez zirenez botazioan abstenitu egin direlako) erabaki dute akta hori onartzea eta dagokion akta-liburura transkribatzea.

2.- Xedapen Ofizialak eta Alkate eta zinegotzi-ordezkarien ebazpenen berri ematea.

Bertaratutakoen esku jarri da alkate eta zinegotzi-ordezkarien Ebazpen-liburua, horren berri izan dezaten.

- Era berean Idazkariak ondorengo irizpen judizialen berri eman du:
- Euskadiko Justizia Epaitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salako epaia, 2005eko azaroaren 7koa, Estatuko Administrazioak udal honek orri ofizialetan “Euskal Presoak Euskal Herrira” lelea erabiltzeko hartutako akordioaren kontra jarritako 1146/03 prozedura arruntari buruzkoa. Epaia baietsi egin du errekurtsua, eta, hortaz, erabat deusez geratzen da akordioa.

Epa horrek inkongruentzia nabarmena egiten duenez, ez diolako erantzuten Udalak aurkeztutako argudio bakarrari, hau da, errekurtsua ezin dela baietsi; Udalak kasazio-errekurtsua aurkeztuko du epa horren kontra.

- Administrazioarekiko Auzien 2 Epaitegiko epaia, 2005eko azaroaren 29koa, Arbeloa Construcciones, S.L. enpresak jarritako 373/04 prozedura arruntari buruzkoa. Enpresak hain zuzen Tokiko Gobernu Batzarrak 2004ko urtarrilaren 27an hartutako akordio baten kontra errekurritu zuen, akordio hartan Usozko aparkalekua eraikitzeaz azalera-eskubidea emateko esleipenari buruzko 2003ko maiatzaren 20ko akordioa ofizioz errebisatzeko eskaerari ezezkua eman zitzaiolako, eta merkataritza-erakunde horrek jarritako 30.000 euroko fidantza inkautatu

zelako. Epai honek ezetsi egin du errekurtsua, errekurritu den akordio hura zuzenbidezkoa dela adieraziz.

- Euskadiko Justizia Epaitegi Nagusiko Adminstrazioarekiko auzi-errekurtsoen Aretoko epaia, 2005eko abenduaren 2koa, Miguel Coca Larrea jaunak ezarritako 1834/01 prozedura arruntari buruzkoa. Hain zuzen, Tokiko Gobernu Batzordeak 2001eko ekainaren 26an hartutako ebazpenaren kontra jarri zuen errekurtsua, ezetsi egiten baitzuen akordio horrek 1.149,20 euroko ondare-errekamazioa. Epai honek ezetsi egin du errekurtsua, kostua berariaz inori egotzi gabe.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen 2. Epaitegiaren epaia, 2005eko abenduaren 5koa, M^a Pilar Oyarzábal Amatriain andreak Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko apirilaren 29an hartutako akordioaren kontra jarritako 272/05 prozedura arruntari buruzkoa. Hain zuzen, akordio hartan, ezetsi egin zen 2005eko apirilaren 29ko aurreko akordioa, erreklamazio-egileak 2004ko ekainaren 24an erorita jasan zituen kalteengatik jarri zuen ondare-errekamazioa ezesten zuena. Epai honek baietsi egin du neurri batean jarritako errekurtsua, eta, batetik, 1.046,39 euro ordainarazi dizkio Udalari eta, bestetik, 4.185,59 euro ordainarazi dizkio Caser Aseguru Etxeari, Udal honekin batera eta solidarioki.
- Azkenik, jakinarazi da Kalitateko Foru Diputatuak Agindua eman zuela 2006ko urtarrilaren 12an, eta horren bitartez Aitor Iñarra González Herri Administrazioiko Funtzionario izendatu zuela, gaikuntza nazionalarekin, Pasaiako Udaleko Idazkari lanposturako.

3.- Alkatearen gestioak eta Gobernu Organoen kontrola (T.E.O.L.ren 46.2.2) artikulua

Alkate andreak azkeneko bilkutatik hona egindako gestioen berri eman du:

- Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseilua. Ez zen onartu Bordalaborda eremuko ordenazioa aurreratzeko hitzarmena, eta, horrenbestez, Portuko Agintaritzako lehendakariarekin bilera egingo du aste honetan bertan.
- Oarsoaldeko Administrazio Kontseilua.
- Ziriza Etxeko erakusketaren inaugurazioa, udalerrian beren lanak erakutsi izan dituzten artisten lanak biltzen dituen.
- Urban Planaren Jarraipen Batzordea. Ogasun Ministerioan izan zen.
- Antxoko laurogeitakakoak.

- San Pedroko laurogeitakakoak.
- Badia-Berriren Administrazio Kontseilua.
- Javier Madrazo jaunaren bisita eremu degradatuetako obretara.
- Instituzioen arteko Batzordea.
- Ondoren, Gobernu Organoak kontrolatzeko tartean, honakoek hartu dute hitza:
 - EA alderdiko zinegotzi-taldeko bozera-maile Miriam Cano andreak eskatu du Oarsoaldeko Administrazio Kontseiluaren aktak udal-taldeei helarazteko, eta hala egingo dela erantzun dio Alkate andreak.
 - PP alderdiko zinegotzi-taldeko bozera-maile Guillermo Sánchez-Berra jaunak informazio gehiago eskatu du URBAN planaren Jarraipen Batzordeari buruz.
 - Alkate andreak erantzun dio ezin duela askoz informazio gehiago eman, eta gaineratu du bileran batez ere hitz egin zela obrak aurreikusitako eremutik kanpo egiteko, adibidez, La Herreratik kanpo, apirilean onartuko diren azken aldaketei buruz.
 - Guillermo Sánchez-Berra jaunak galdetu du ea litekeena ote den intseguritate juridikoan egotea Navalaldea-Bordalaborda proiektuan.
 - Alkate andreak erantzun dio hala dela, egoera delikatua dela, Udalak akordioa lortua zuelako jada Portuko Agintaritzarekin gai honen inguruan, Foru Aldundia jakinaren gainean egonik, eta zenbait bilera izan zirela 2005. urtean, aurreikusitako prozeduraren kontrakorik azaldu gabe, harik eta obra hasteko bezperan, Administrazio Kontseiluak Hitzarmena onartzeari uko egin zion arte, esanez onartzekotan Hitzarmenak Portuaren eta herriaren arteko gatazkarik sortzen ez duten gainerako portu-eremuak ere hartu beharko dituela.
 - Idazkariak Alkateak azaldutakoa berretsi du, eta bere egin ditu harek esandakoak, hura ere testigu izan baita gai hau dela-eta egin diren bileretan.
 - Guillermo Sánchez-Berra formalki eskatu du Azpiegitura Handien Batzordearen bilerarako deia egin dadila, eta arkitektoa, kontu-hartzailea eta idazkaria han egon daitezela, URBAN plana aztertzeke.
 - José Luis Goikoetxea jaunak, EAJ-PNV alderdiko bozeramaileak, bat egin du eskaera horrekin, eta are gehiago, eskatu du bilerak beste azpiegitura handi batzuetarako eta hiri-errehabilitaziorako jarduketetarako ere egin daitezela.
 - Miriam Cano andreak ere bat egin du eskaera horrekin.

- Guillermo Sánchez-Berra jaunak hatcheri-ari buruz informazio gehiago eman diezaiotela.
- Alkate andreak jakinarazi du helarazi diela sustatzaileei korporazioa konbentzitzen ez zuten gaiak aldatzeko egindako eskaera, eta haiek jakingo dutela komeni zaien ala ez proiektuarekin jarraitzea baldintza horietan.
- Guillermo Sánchez-Berra jaunak galdetu du non jarriko den Jaizkibiaren egoitza soziala, kontu horrek interes berezia baitu bere taldearentzat, akordio hartan abstenitu egin zirelako, ikusten zutelako Pasaia Udalak ez zuela merezi besteko protagonismorik Batzorde hartan.
- Alkate andreak adierazi dio Jaizkibiak portuko Kontsignatarioen eraikinean izango duela egoitza.

HIRIGINTZA

4.- Bordialaborda: Urbanizazio obraren proiektu arruntaren multzoaren Plan Gidaria.

Hirigintza eta Ingurumeneko Udal Batzorde Informatzaileak 2006ko urtarrilaren 18ko ebazpen bidez egindako proposamenaren arabera, Udalbatzak honakoa erabaki du bertaratutako zinegotzi guztiez adostasunez

AKORDIOA

Alkate andreari gaitasuna ematea proiektu guztiak bakoitza bere aldetik edo loteka exekutatzeko, Udalaren gaitasun ekonomikoaren arabera.

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen botazioaren emaitza: ZAZPI (7) boto alde, PSE-EE (5) eta EB-IU (2) alderdietako zinegotzianak, eta SEI (6) kontra, EAJ-PNV (4) eta EA (2) alderdietako zinegotzianak; BI (2) abstentzio izan dira PP alderdiko zinegotzianak (2).
- Parte hartzeko tartean honakoek hartu dute hitza:
 - José Luis Goikoetxea jaunak azaldu du bere taldeak kontrako botoa emango duela, kontratazio-gaietan Udalbatzak dituen eskumen ia guztiei uko egitea dakarrelako akordioak.

5.- Gran-Sol, 4-6 E.U.-ko xehetasun azterlanaren behin betiko onarpena.



AURREKARIAK

Hirigintzako Zinegotzi Ordezkariek 2005eko abenduaren 20an Pablo Enea 2. poligonoko Gran Sol (2-4) Exekuzio Unitatearen Xehetasun Azterketa berriari hasierako onespena eman zion. Dokumentua I. Bolibar, R. Errazkin, A. Uriarte eta A. Errasti arkitektoek idatzi dute, eta E.H.A.E.O.aren 2005eko urriaren 25eko ikus-onetsia du, eta Udalbatzak 2005eko apirilaren 5ean behin betiko onartutako Xehetasun Azterlana ordezkatzen du.

Dokumentua jendaurrean jarri zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udalerriko hedapen handieneko egunkari batean abenduaren 21ean argitaratu ondoren, eta hamabost eguneko epean ez da oharrik aurkeztu.

Udal Arkitektoak 2005eko abenduaren 15ean hasierako onarpenerako aurkeztutako dokumentuari aldeko txostena egin zion

ZUZENBIDE OINARRIAK

Toki Administrazioen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak Udalbatzari ematen dio hirigintza legerian aurrekusiak diren Planen eta gainerako tresnen behin betiko onarpenaren eskuduntza, eta 47. artikulua gehiengo absolutua eskatzen du.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi gehienek adostasunaz, eta Hirigintza eta Ingurumen Batzorde Informatzaileak 2006ko otsailaren 18ko ebazpen bidez emandako proposamena kontuan hartuta,

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Behin betiko onespena ematea Pablo Enea 2. poligonoko Gran Sol (2-4) Exekuzio Unitatearen Xehetasun Azterketa berriari, hain zuzen ere, I. Bolibar, R. Errazkin, A. Uriarte eta A. Errasti arkitektoek idatzi, eta EHAE.O-aren 2005eko 10-25eko ikus-onetsia duena. Udalbatzak 2005eko apirilaren 5ean behin betiko onartutako Xehetasun Azterlana ordezkatzen du.

BIGARRENA.- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Hirigintza Planeamenduaren Arautegiko 140.6 artikulua agindutakoa jarraituz.

HIRUGARRENA.- Dokumentua behar bezela diligentziatzea, hain zuzen ere, Hirigintzako Planeamenduari buruzko Araudiak 140.7 artikuluan ezartzen duen moduan.

LAUGARRENA.- Udal eskubideak likidatzea behar bezala jakinarazi eta gero.

BOSTGARRENA.- Akordio hau interesdunei jakinaraztea eta beraren kontra jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen botazioaren emaitza: BEDERATZI (9) boto alde, PSE-EE (5), PP (2) eta EB-IU (2) alderdietako zinegotzienak eta SEI (6) kontra, EAJ-PNV (4) eta EA (2) alderdietako zinegotzienak.

PERTSONAL ETA ADMINISTRAZIOA.

6.- “Pasai Donibaneko Arizabalo Jauregia Udal bulegoetarako egokitzeko proiektua” obraren kontratazio espedientea onartzea.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi gehienek adostasunez, honakoa aurkeztu du onar dadin:

PERTSONAL ETA ADMINISTRAZIO BATZORDEAREN IRIZPENA, 2006KO URTARRILAREN 24KOA

Ikusirik “PASAI DONIBANEKO ARIZABALO JAUREGIA UDAL BULEGOETARAKO EGOKITZEKO -” proiektua, CHAVARRI Y ASOCIADOS, S.L.-k erredaktatua, 1.996.757,87 euroko aurrekontuarekin, eta ikusirik espedientean agertzen diren txostenak, Kontuhartzailearena eta Udal honen Idazkariarena, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22. 2, n) atalean zehazten denez, Pertsonal eta Batzordeko Informazio Batzordeak Korporazioko Udalbatzari honako akordioa aurkeztu du onar dezan:

AKORDIOA

LEHENENGOA.- “PASAI DONIBANEKO ARIZABALO JAUREGIA UDAL BULEGOETARAKO EGOKITZEKO ” proiektua, CHAVARRI Y ASOCIADOS, S.L.-k erredaktatua ontzat ematea.

BIGARRENA.- “PASAI DONIBANEKO ARIZABALO JAUREGIA UDAL BULEGOETARAKO EGOKITZEKO ” obraren kontratazio espedientea ontzat ematea 1.996.757,87 euroko aurrekontuarekin.

HIRUGARRENA.- Kontratu hau esleitzeko prozedura irekia ezartzea eta kontratazio era enkantea izatea.

LAUGARRENA.- Gastua A-1.761/05; (C) A-1.694/05 eta (C) A-1.695/05 Baimenduen kargura onartzea.

BOSGARRENA.- Kontratu hau arautzeko Baldintza Ekonomiko Administratibo Berezien Plegua onartzea.

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen botazioaren emaitza: BEDERATZI (9) boto alde, PSE-EE (5), PP (2) eta EB-IU (2) alderdietako zinegotzienak eta SEI (6) boto kontra, EAJ-PNV (4) eta EA (2) alderdietako zinegotzienak.
- Parte hartzeko txandan, honakoek hartu dute hitza:
 - José Luis Goikoetxea jaunak azaldu du bere taldeak akordioaren kontrako botoa emango duela, Batzorde Informatzailean ere azaldu zituen arrazoi berdinengatik. Bere ustez proiektuak indiferentziaz edo jasan beharrekotzat tratatzen ditu politikariak, eta tratamendu ezberdinak ematen dituzte arearen arabera, inongo uniformetasunik gabe. Gainera, proiektuak ez du plan edo programarik erosketa osagarriak egiteko beste udal-instalazio batzuk jarri ahal izateko, adibidez, Donibane 25eko beheko lokala.
 - Lore Suárez andreak EAJ-PNV alderdiari aurpegiatu dio hala eta guztiz ere ez duela alegaziorik aurkeztu horretarako epean. Azaldu du udaletxearen arlo garrantzitsuenak jarriko direla eraikin horretan, eta asko hobetuko direla bai gaur egungo bulegoak bai eta langile publikoen lan-baldintzak ere, eta, horrek, inondik ere, zerbitzua hobetuko duela.
 - Miriam Cano andreak ere bere alderdiak kontra botatuko duela adierazi du, Batzordean adierazitako arrazoiak direla-eta.
 - José Luis Goikoetxea jaunak, Lore Suárez zinegotziari erantzunez, gogorarazi du espedientean badirela EAJ-PNV taldearen zenbait idatzi eraikina ordenatzeko proposamenak jasotzen dituztenak.
 - Lore Suárez andreak erantzun dio EAJ-PNV taldeak ontzat eman zuela proiektuaren egileari helarazi zioten beharren dokumentua (arloka eta solairuka), proiektua idazteko oinarri hartu duena.

7.- Medikuaeren etxea Administrazioak ofizioaz berreskuratzea (behin betiko onarpena)

Udalbatzak, bertaratutako zingetzi guztien adostasunez, honako AKORDIOA hartu du:

2006ko urtarrilaren 24ko Pertsonal eta Administrazioiko Batzorde Informatiboaren irizpena:

“GERTAERAK



2005/10/25eko udalbatzan Donibane kaleko 30ean dagoen eraikina, Mediku-etxea esaten zaiona, ofizioz berreskuratzeko prozedurari ekitea erabaki zen, hainbat lagunek, besteak beste Aitor Gómez Martín jaunak inolako titulu juridikorik izan gabe okupatua zutelako. Era berean jendaurreko entzunaldiaren izapidea ireki zen direlako okupatzaileentzat, eta aldi berean, haiei jakinarazi zitzaien zein egoera kaxkarrean zegoen etxea eta zer arriskutan egon zitezkeen.

2005/12/29an jakinarazi zitzaion delako akordioa etxebizitza okupatzen duen Laida IZAGUIRRE ARRUTI andreari, eta emakume horrek jakinarazi zien udaltzainei Aitor Gómez Martín okupatzailea jada ez zela eraikinean bizi. Hori guztia jaso dago Udaltzaingoak 2005/12/29ko datan egin zuen eginbidean.

Etxebizitza-okupatzaileei alegazioak egiteko hamar eguneko epea eman zitzaion eta epe horren barruan idatzia aurkeztu dute, eta idatzi horretan adierazten dute gazteek etxebizitza-beharra dutela eta ondorioz eraikina okupatzen jarraituko dutela.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Mediku-etxea deritzan higiezinaren titularra Pasaiako Udala da eta 1988z geroztik ondasun eta eskubideen udal inbentarioan inskribatua dago 1.14 epigrafepean.

Era berean delako eraikina jabari publikoko ondasuna da Gizarte Ekintzako Sailari atxikia eta Jubilatutako Elkarte berria eta Gizarte Laguntzako Arloa kokatuko dira bertan, eta 1986/1372 Errege Dekretuko 70 eta 71 artikuluetan eta Herri Administrazioen Ondarea arautzen duen 33/2003 Legeko 55., 56. eta 57. artikuluetan jasotzen denari jarraiki Udalbatzak edozein mementotan berreskura dezake.

Eraikinaren okupazioa 2005eko udan gertatu zen Udaltzaingoak 2005/08/24an egindako txostenean egiaztatzen den bezala, eta beraz, usurpazioa berria da.

2005/06/28ko udalbatzako akordioan urgentziaz eraikina eraitsi eta orubea finkatzea erabaki zen, eta hortaz eraikina arriskutsua da okupatzaileentzat.

Bestalde, eraikin okupatzaileek ez dute inolako titulu juridikorik etxea okupatzeko eskubidea ematen dienik, eta aurkeztu duten idatzia gehiago da gazteek bizi duten etxebizitza-premia agertzen duen alegatoa, non alegazioak baino gehiago salatzen duten Udalak etxebizitza huts ugari dituela



eta hala ere ez diola gazteen arazoari irtenbiderik eskaintzen, eta horregatik okupatu dutela etxebizitza eta horregatik jarraituko dutela bertan.

Aurreko guztiak kontuan, Administrazio eta Pertsonaleko Informazio Batzordeak ondoko ebazpen proposamena egiten du, onartutakoan udalbatzari bidaltzeko:

LEHENA.- OFIZIOZ BERRESKURATZEA Donibane kaleko 30. zk.an dagoen udal eraikina, Mediku-etxea esaten zaiona, indarrean den arautegian ezarritakoari jarraiki.

BIGARRENA.- Eraikin horretako okupatzaileei **AGINTZEA** erabakia jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita 15 eguneko epean bizitegia **HUSTU** eta **LIBRE UZTEKO**; hala egin ezean ohartarazten zaie Udalbatzak berak hutsarazi eta libre uztera behartuko dituela, horretarako behar dituen hertsapen-bideak erabiliz.

8.- Santa Anaren etxea Administrazioak ofizioaz berreskuratzea.

Udalbatzak, bertaratutako zingetzien aho batez, ondoko **AKORDIOA** hartu du:

2006ko urtarrilaren 24ko Pertsonal eta Administrazioako Batzorde Informatiboaren irizpena:

“GERTAERAK

2005/10/25ean egin zen osoko bilkuran Donibane Pasealekua 00-01-ean dagoen udal titulartasuneko eraikina –Santa Ana ermitari erantsitakoa- ofizioz berreskuratzekeko prozedurari ekitea erabaki zen. Zerbitzuetako buruak 2005eko maiatzeko datan egindako txostenean agertzen du titulu juridikorik izan gabe okupatu zuela delako eraikina Eric Sainz Ezkerra del Rio jaunak.

Era berean interesdunarentzat entzunaldi publikoaren izapidea irekitzea erabaki zen.

2005/12/19an Eric Sainz Ezkerra del Rio jaunak udal erregistroan 6133 sarrera-zenbakia duen idatzia aurkeztu zuen. Idatzi horretan 2005/10/25eko udal akordioari, ofizioz eraikina berreskuratzekeko akordioari, alegazioak aurkezten dizkio eta ondoko eskaerak egiten ditu:

- Espedientea geldiaraztekeo bertan hainbat forma-akats daudelako.
- Bertan egin diren lanak nola alderdi ekonomikotik -ondare-ondasuna kontser-batzen erabilitako esku-lana- hala eremu horri ekarritako segurtasun eta txukuntasun aldetik ere balioetsiak izan daitezen.

- “Beste lagapen era bat” aitortua izan dakiola, 1372/1986 Errege Dekretuko 92.1 artikuluari jarraiki.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Santa Ana ermitari erantsitako etxebizitza udal jabetzapekoa dela frogatzen dute ondokoek:

- 1997an Udal Ondasunen Inbentarioan inskribatu izana, 1.25 epigrafepean.
- Jabetza Erregistroan inskribatu izana, Pasaiako Udalak Jose Elorza Iceta jaunari erosi ondoren. Ondoko signatura du Jabetza Erregistroan: 1626 Liburukia 178 Liburua 118 Orria 7365 zk.ko finka 5. Inskripzioa..

Delako ondasuna jabari publikoko ondasuna da; izan ere:

- Pasaiako Hirigune Historikoak Birgaitzeko Plan Berezian Santa Ana ermita eta hari erantsitako etxebizitza ekipamendu komunitariotzat kalifikatzen dira, museo izateko bereizten dira, eta delako plana onartu zenetik jabari publikoko ondasun izatera igaro zen 1986/1372 Errege Dekretuaren 8. artikulua 4) a)-ri jarraiki.
- 2005/10/25eko osoko bilkuran behin-behineko onarpena eman zitzaion eraikinaren demaniotasun-mutazioari eta udal biltegi izateko bereizi zen, eta halaber jendaurreko erakusketan alegaziorik aurkitu ezean delako mutazioa onartutzat joko zela erabaki zen. Ez zen alegaziorik aurkeztu eta demaniotasun-mutazioari behin betiko onarpena eman zitzaion.

Bestalde, Sainz jaunak etxebizitza ofizioz berreskuratzeko erabakiari alegazioak aurkeztu dizkio eta horietan ondoko akatsak ditu:

- Sainz jaunaren iritzian Santa Ana ermitari erantsitako etxebizitza kalifikazio aldetik ondare-ondasuna da eta hori ez da horrela gorago adierazi dugun bezala, eta horretaraz gero idatziko 7., 9. eta 11. puntuak bidegabekoak dira, horiek ondare-ondasunei dagozkielako.
- Sainz jaunak adierazten du Pasaiako Udalak ez duela bete 1372/1986 Errege Dekretuak ezarritako prozedura ikerketa egiteko orduan, administrazioek euren ondasunei datxekiela duten eskumenetako bat. Berriro huts egiten du Sainz jaunak Udalak ez baitu inondik ere ikerketarik egin nahi izan, bere dituen ondasunak ofizioz berreskuratzeko eskumena erabili baizik,

akordioan espresuki adierazten denez, eta hura bestelako eskumena izaki 1986/1372 Errege Dekretuko 70 eta 71 artikuluetan eta Herri Administrazioen Ondarea arautzen duen 33/2003 Legeko 55., 56. eta 57. artikuluetan jasotzen den bezala. Ikerketa egiten da ondasunen jabea zein den zalantza dagoenean, baina kasu honetan ez da horrelakorik. Beraz, interesdunak aurkeztutako idatziko 13., 14., 15., 16. eta 17. puntuak ezin onartuzkoak dira.

- Okupatzaileak eraikinaren barruan egin ahal izan dituen hobetze-lanei buruz adierazi behar da baimen edo lizentziarik eskatu gabe egin dituela eta beraz, alegatzailearen gain eta galorde. Bestalde, adierazi behar da, Zerbitzu Saileko Buruaren arabera, ur eroanbidean manipulazioak eta kalteak gertatu direla eta horiek Santa Ana ermita ondoko bizitegi okupatzaileak inolako baimen edo lizentziarik gabe egin dituela.

Sainz jaunak ez du inolako titulu juridikorik udal higiezin okupatzeko eskubiderik ematen dionik, eta delako etxebizitzan 2002z geroztik erroldatua egoteak ez dio inongo titulu juridiko edo eskubiderik aitortzen.

2005/06/28ko udal akordioaren ondotik eraikina beste zerbitzu publiko bati atxiki zaio, udal biltegiari, eta hortaz Udalak higiezin horren beharra du.

Aurreko guztiak kontuan, Administrazio eta Pertsonaleko Informazio Batzordeak ondoko ebazpen proposamena egiten du, onartutakoan udalbatzari bidaltzeko:

LEHENA.- OFIZIOZ BERRESKURATZEA Donibane Pasealekua 00-01-ean dagoen Santa Ana ermitari erantsitako udal higiezin, Sainz jaunak egindako eskaerak eta alegazioak ezetsi ondoren, indarrean den arautegian ezarritakoari jarraiki.

BIGARRENA.- AGINTZEA OKUPATZAILEARI erabakia jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita 15 eguneko epean bizitegia HUSTU eta LIBRE UZTEKO; eta hala egin ezean ohartarazten zaio Udalbatzak berak hustu eta libre uztera behartuko duela, horretarako behar dituen hertsapen-bideak erabiliz.”

9.- EUFALEBA: 2005EKO lansariak.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, honak aurkeztu du onar dadin:



PERTSONALA ETA ADMINISTRAZIOA BATZORDEAK 2006KO URTARRILAREN 21EAN EMANDAKO IRIZPENA

“EUDEL erakundeak 2005eko ekitaldiko soldata-igoerak berehala aplikatzeko egin duen proposamena kontuan hartuta, Batzorde honetako buruak botaziora ekarri du *“Euskadiko Tokiko Erakundeen Mahai Negoziatzailearen Akordioaren”* 4. puntua, 2005eko soldata-igoerari buruzkoa.

Proposamena botatu egin da, eta Pertsonala eta Administrazioa Batzordeak Udalbatzari aurkeztu dio honakoa, onar dezan:

AKORDIOA

2005erako soldata-igoera onartzea, *“Euskadiko Tokiko Erakundeen Mahai Negoziatzailearen Akordioaren”* 4. puntuak finkatu bezala, hain zuzen:

“4.- ORDAINSARI-ERREGIMENA

2005 urtea:

Erabaki da 2005. urteko ordainsariak %2 igoko direla, 2004ko ordainsari globalekiko. Eta hori, bai oinarrizko ordainsarrietan zein osagarrietan. Gainera, 2005erako urteko ordainsariek %20ko hazkunde osoa izango dute, langile bakoitzaren lanpostu mailaren osagarri gisa, ezohiko ordainketa birekin. Bestetik, modernizazioari, zerbitzu publikoen prestazioaren arrazionalizazioari eta Erakundearen administrazioaren produktibitatearen hobekuntzari dagokion fondoa ere modu gehigarrian handituko da. Kopuru hori eta aipatutako hiru kontzeptuengatik hazkundearen masa gehituta, 2004ko oinarrizko ordainsarien eta ordainsari osagarrien soldata-masaren %4,1en kopuru baliokidea lortu behar da, 2005eko urtarrilaren 1etik atzeraeraginezko izaerarekin eta, halakorik balitz, konturako hazkundeak kenduta.”

10.- Kale-garbiketaren kudeaketaren inguruko akordioak: Zerbitzua Kudeatzeko Sistema aldatu eta zeharkako sistema ezartzea, proiektua eta kontratazio-espeditentia onartzea eta kale-garbiketako langileen plazak amortizatzea.

A) Kale-garbiketako kudeaktearen sistema aldatu eta zeharkako sistema jartzeko onarpena.

Udalbatzak, Korporazioaren partaideen kopuru legalaren gehiengo absolutua eratzen duten zinegotziek bertaratu eta aho batez hala adostu zuten, eta apirilaren 2ko Tokiko Erregimen Oinarrien 7/1985 Legeko 47.2 n) artikulua araber, onar dadin aurkezten ditu honako irizpen hauek:



PERTSONAL ETA ADMINISTRAZIOKO BATZORDE INFORMATZAILEAK 2005EKO UZTAILAREN 7KO SAIOAN EMANDAKO IRIZPENA.

“Bide garbiketaren zerbitzua Zeharkako Kudeaketa bidez emateko akordioari buruzko hasiera bateko onarpena aintzakotzat hartu da.

Espedienteak jendaurreko erakustaldiaren izapidea bete du 30 egun naturaleko epean eta jendaurrean jarri da memoria eta proiektua iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarritako iragarkien bidez. Horiek horrela, ondorengo alegazioak aurkeztu dira:

- A) 3432 zk.a duen erregistro-sarrera; alegazio egilea: Ricardo del Pozo Gil de Albornoz.
- B) 3433 zk.a duen erregistro-sarrera; alegazio-egilea: Juan Carlotz Alduntzin Juanena, Badia Plataformaren izenean.
- C) 3434 zk.a duen erregistro-sarrera; alegazio-egilea: Bixente Makazaga Franco, Udaleko Langileen Batzordearen izenean.
- D) 3435 zk.a duen erregistro-sarrera; alegazio-egilea: LAB, ELA eta CCOO sindikatuak.

2005eko uztailaren 7ko Pertsonal eta Administrazio Informazio-batzordean egindako alegazioak kontuan hartu ondoren, honako azterketa honi ekin zaio.

Ricardo del Pozo alegazio-egileak eskubidea du honako espediente hau berari euskaraz erakuts dakion, izan ere azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 7.3. artikulua arabera, euskararen erabileraren normalizazioari buruzkoa, erakustaldietan itzulpena bermatuko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozeinetan eskatzen duenari.

Alegazio-egileak jendaurreko erakustaldiaren epeko azken egunera arte itxaron du itzulpena eskatzeko, lehenago egitea bazuenean. Hortaz, hasiera batean aurreikusitako epea ematea ez da bidezkoa, baizik eta astebetekoa, arrazoizkotzat eta nahikotzat hartzen dena bere eskubidez baliatzeko.

Badia Plataformaren alegazioan azaltzen diren argudioak ez dira zuzenak.

Era berean, bidezkoa da sindikatuetakoa ordezkariek aurkeztutako alegazioak ezestea.

Kontuan hartu dira Bideko Zerbitzu Publikoaren Kudeaketa dela-eta, forma-aldaketari buruzko txostena eta Udaleko Pertsonal eta Administrazio Batzordearen proposamena, 2005eko otsailaren 28ko ebazpen bidez emana.



Halaber, aintzat hartu dira Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 85. art.ak dioena eta zerbitzu publikoa nola eman erabakitzeko Administrazioak berezkoa duen zuhurtziarako ahalmena.

Zerbitzu publikoen kudeaketa-era zehatza hautatzeko eskumena Udalbatzarena da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22.2.f) artikulua ezarritakoa betez.

Idazkaritzak nahitaezko txostena egin du, hala ezartzen baita Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 47.2.k) eta Toki Araubideari buruzko Testu Bateginaren 54.1.b) artikuluetan. Pertsonal eta Administrazio Batzordea osatzen duten talde politiko gehiengoak honako akordioa hartzeko proposatu dio udalbatzari:

AKORDIO-PROPOSAMENA

LEHENA.- Ricardo del Pozo jaunaren alegazioa ontzat hartzea eta espedientea itzultzea, alegazio-egilearen eskura jar dadin astebeteko epean, komenigarritzat jotzen dituen alegazioak jar ditzan.

BIGARRENA.- Gainerako alegazioak ezestea.”

PERTSONAL ETA ADMINISTRAZIOKO BATZORDE INFORMATZAILEAK 2005EKO IRAILAREN 23KO SAIOAN EMANDAKO IRIZPENA.

“Bide garbiketa zerbitzuaren kudeaketa-aldaketari buruzko espedientea aztertu dugu.

Delako espedientea jendaurrean jarrita alegazio batzuk egon ziren, eta hauetatik gehienak Pertsonal eta Administrazio Batzorde honetan ezetsi ziren 2005eko uztailaren 7ko bileran.

Gorago aipatutako bilera horretan Ricardo del Pozo Gil Alborno jaunari onartu egin zitzaion espedientea euskaraz irakurtzeko duen eskubidea eta espedientearen euskarazko itzulpena helarazi zitzaion astebeteko epean nahi zituen alegazioak aurkez zitzan.

Ricardo del Pozo Gil de Alborno jaunak 2005eko irailaren 8an eta 14an, hurrenez hurren, aurkeztutako alegazioak aztertu ondoan Batzordeak bertan dauden zinegotzien gehiengoaren oniritziarekin honako ebazpen-proposamena igortzen dio udalbatzari:



AKORDIO-PROPOSAMENA

LEHENA.- Ezestea Ricardo del Pozo Gil de Albornoz jaunak aurkeztutako alegazioak.

BIGARRENA.- Behin betiko onarpena ematea Bide Garbiketa Zerbitzuaren kudeaketa-aldaketari, Zeharkako Kudeaketaren alde eginez.”

- Adostu beharreko hiru irizpenei buruz botazio nominala eskatu denez, botazioa egin da, eta Udalbatzak ezetsi egin du irizpenok onartzea, bertaratutako zinegotzi gehienek kontrako botoa eman baitute, hain justu: BEDERETZI (9) boto kontra, PSE-EE (5), PP (2) eta EB-IU (2) alderdietako zinegotzianak, eta SEI (6) alde, EAJ-PNV (4) eta EA (2) alderdietakoenak.
- Aktan jasota gera dadin, hauxe izan zen botazioaren emaitza: BEDERATZI (9) boto alde PSE-EE (5), PP (2) eta EB-IU (2) alderdietako zinegotzianak eta SEI (6) kontra, EAJ-PNV (4) eta EA (2) alderdietako zinegotzianak.

A) Kale-garbiketako Zerbitzuren Kudea-keta kontratatzeko proiektuaren eta kontratazio-espeditentearen onarpena.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi gehienek adostuta, honako irizpenak aurkeztu ditu onar daitezzen:

OBRA ETA ZERBITZUETAKO BATZORDE INFORMATZAILEAK 2004KO MAIATZAREN 10EKO SAIOAN EMANDAKO IRIZPENA

“2004ko maiatzaren 10ean eginiko saioan, Obra eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak honakoa aurkeztu dio Udalbatzari onar dezan:

AKORDIO-PROPOSAMENA

- 1.- Kale-garbiketako Zerbitzua kanpora kontratzeari onarpena ematea.
- 2.- Plegu ekonomiko-administratiboak eta teknikoak onartzea, nahiz aldaketa eta doiketa batzuk egon daitezkeen gerora lege edo administrazio aldetik beharrezkoa balitz.”

PERTSONAL ETA ADMINISTRAZIOKO BATZORDE INFORMATZAILEAK 2005EKO OTSAILAREN 28KO SAIOAN EMANDAKO IRIZPENA (2. puntua)

“Pertsonal eta Administrazioko zinegotzi andreak kale-garbiketako zerbitzua dela-eta egindako proposamena kontuan hartuta, Pertsonal eta Administrazioko Batzorde Informatzaileak honakoa aurkezten du Udabaltzan onar dadin



AKORDIO-PROPOSAMENA

.....

BIGARRENA.- Aurreko puntuari jarraiki, kale-garbiketa zerbitzuari buruzko kontratazio-espeditentea onartzea, zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratazioa, alegia.

.....”

2006KO URTARRILAREN 30EKO ALKATETZAREN PROPOSAMENA.

“**ALKATETZA** honek 2004ko maiatzaren 10ean Obra eta Zerbitzuen Batzordeak hartutako akordio bat aldatzea proposatzen dio Udalbatzari. Hain justu, akordio horren bidez “Pasaiako udalerriko kale-garbiketa zerbitzua” kontratazeko lehiaketa irekia arautuko zuten baldintza ekonomiko-administratiboen pleguak finkatu ziren.

2004ko maiatzaren 10ean Obra eta Zerbitzuen Batzordeak hartutako akordio horren 2. puntua aldatu nahi da, hain justu; honela gera dadin:

6. PREZIOEN ERREBISIOA

Prezioen errebisioa HAKLTBren 103-108. artikuluek agintzen dutenari jarraika egingo da. Eskainitako prezio unitarioak urtebetez izango dira indarrean, kontratua esleitzen den egunetik hasita. Urtebeteko epea pasatuta, prezioa urtero eguneratuko da, aurreko urteko Euskadiko Kontsumorako Prezioen Indizea —Estatuko Estatistika Institutuak (INE) argitaratutakoa— aplikatuta”

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen botazioaren emaitza: BEDERATZI (9) boto alde, PSE-EE (5), PP (2) eta EB-IU (2) alderdietako zinegotzienak, eta SEI (6) kontra, EAJ-PNV (4) eta EA (2) alderdietako zinegotzienak.

B) KALE-GARBIKETAKO LANGILEEN PLAZEN AMORTIZAZIOA.



Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi gehienek adostuta, honako irizpenak aurkeztu ditu onar daitezten:

PERTSONAL ETA ADMINISTRAZIOKO BATZORDE INFORMATZAILEAK 2005EKO OTSAILAREN 28KO SAIOAN EMANDAKO IRIZPENA (3. puntua).

““Pertsonal eta Administrazioko zinegotzi andreak kale-garbiketako zerbitzua dela-eta egindako proposamena kontuan hartuta, Pertsonal eta Administrazioko Batzorde Informatzaileak honakoa aurkezten du Udabaltzan onar dadin

AKORDIO-PROPOSAMENA

.....

HIRUGARRENA.- Aurreko puntuen ondorioz, kale-garbiketako peoi plaza amortizatzea, otsailaren 16ko udalbatzarrean onartutako 2005eko udal plantillan aurreikusten denaren arabera.”

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen botazioaren emaitza: **BEDERATZI (9)** boto alde, **PSE-EE (5)**, **PP (2)** eta **EB-IU (2)** alderdietako zinegotzienak, eta **SEI (6)** kontra, **EAJ-PNV (4)** eta **EA (2)** alderdietako zinegotzienak.
- Parte hartzeko garaian, honakoek hartu dute hitza:
 - Lore Suárez andreak azaldu du nahiz eguneko gai-zerrendan puntu bakarra den, bere hiru akordio direla onartu beharrekoak eta banaka-banaka botatu beharko dela.
 - José Luis Goikoetxea jaunak adierazi du azken akordioko proposamena falta dela, onartzeko proposatzen diren terminoak argi jasoko dituen.

Onartu beharreko lehenengo akordioari dagokionez, hau da, kudeaketa-aldaketari buruzkoari dagokionez, bere taldeak bat egiten du udal-idazkariaren iritziarekin, eta uste du, segurtasun juridikoagatik, espedientea iraungitzat jo eta prozedura berriari ekin behar litzaiokeela; izan ere, hori hala eginda espedientea betiko luzatzea litzateekela dioen argudioaren kontra, gogoan izan behar da prozedura bi urtez luzatu dela, nahiz luzapen hori gobernu-taldeak akordioa lortzeko gehiengo nahikorik ez izateari egor dakioken, horregatik luzatu baita guztia.

- Horrez gain uste du proiektuari azterketa edo txosten ekonomikoa falta zaiola, espedientean jasotakoek esaten dutelako azterketok bere garaian egingo direla, besterik ez; eta, hortaz, ez daukagu txostenik akordioak aurrekontuan edo plan ekonomiko-finantzarioan izan ditzakeen ondorioei buruz ezer dioenik.
- Azkenik, aurreratu du bere taldeak botazio nominala egin dadila eskatuko duela, akordio hau onartzeak erantzukizun ekonomiko handia ekar lezakeelako.

- Alkate andreak adierazi du prozedurak ez duela iraungitze-biziorik, eta are gehiago, esan du ez duela uste kasu honi aplikatu dakiokeenik, gai hau interes orokorrekoa delako, hain zuzen ere, kasu honetan funtsezko zerbitzu bati buruz ari garelako, kale-garbiketari buruz.
- Lore Suárez andreak adierazi du udalean tramitatu diren zeharkako kudeaketako espedienteak errebisatu behar liratekeela, ikusteko beste espediente horietan ez dela kasu honetan bezain prozedura zorrotza.
- Guillermo Sánchez-Berra jaunak uste du bere taldeak koherentzia handia erakutsi duela proiektu hau defendatzerakoan, eta beste talde batzuek, berriz, hasiera batean defendatu arren, gero iritzia aldatu dutela jarduteka hau egiteko beharrezko aurrekontu-itunari buruz.
- José Luis Goikoetxea jaunak espedienteetan jasotako txostenak aztertu ditu, kontu-hartzaileak 2005eko apirilaren 25ean abiarazi zuen espedientetik hasita, zeinean eskatzen zuen konparaziorako terminoak bateratzeko. Zerbitzuburuak eginiko txostenari buruz, azaldu du zerbitzua zuzenean ematearen alde agertu zela, kostua ere txikiagoa zuela-eta. Kontu-hartzaileak ez du azaldu oraindik zer-nolako eragina izango lukeen proiektuak aurrekontuan eta udalak gaitasunik balukeen gastu horri aurre egiteko.

Azterketa horiek falta direnez, bere taldeak proposatu du koste txikiagoko beste alternatiba batzuk ere aztertzea, batez ere, jakinik akordio hau errekurritu egingo dela.

Kontratazio-espedientea aprobatzeko akordioari buruz, uste du bai irizpena eta bai derrigorrezko txostena falta direla.

Gastuaren finantzazioari dagokionez, bere ustetan kreditu-txertaketako dekretua falta da.

- Udaleko kontu-hartzaileak adierazi du hain justu gaurko egunez formalizatuko dela aurrekontua luzatzeko Dekretua, eta bere ustez aurrekontu horretan litekeena litzatekeela 2004ko eta 2005eko ekitaldietako kredituak txertatzea, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako txostenean adierazi bezala.
- Udal-idazkariak baldintza administratiboen pleguari dagokionez jakinarazi du ez duela ezagutzen eta ez duela juridikoki aztertu eta, hortaz, berak botazioa atzeratzea aholkatzen duela, hobeto azter dadin; proiektatutako gainerako txostenetan adierazitakoa gogora ekarrita.

Edozein kasutan, Alkatetzako proposamenari buruz, azaldu du bere ustez ezin dela prezioen errebisioa egin, harik eta zenbatekoaren %20 exekutatzeko den arte eta esleitu zenetik urtebete pasatzen den arte (Administrazio Publikoetako Kontratu Legearen Testu Bateratuari buruzko ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu legegearen 103.1 artikulua xedatzen duenez).

11.- Pasai Antxoko Azoka Kultur Zentroa erabiltzeko Araudiaren hasierako onarpena.

Mahai gainean geratu da gaia, hobeto aztertzeko:

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen hitza hartutakoek adierazitako:
 - Idazkari jaunak 2006ko urtarrilaren 31n egin zuen txostenaren berri eman du; txostenean adierazi zuen, hain justu, araudiaren alderdi tekniko-juridikoa hobetu behar dela, sistematizatzeko batetik eta bertako betekizunak ez betez gero edo bestelako kontu batzuen inguruan aplikatu beharreko erregimen juridikoa jasotzeko, bestetik.
 - José Luis Goikoetxea jaunak eskatu du espedientea Idazkaritzara bidal dadila, idazkari jaunak dagozkion proposamen tekniko-juridikoak egin ditzan Udalbatzak bere iritzia agertu aurretik.
 - Alkate andreak erretiratu egin du puntu hau gai-zerrendatik, hobeto aztertzeko.

Gai-zerrendaz kanpo:

12.- Gas Pasaia, S.A. enpresako aholkulari ohi Ricardo del Pozo eta Xabier Portugal jaunek Gas Pasaia enpresako akzioak besterentzeko hartutako akordioaren kontra aurkeztutako errekursoari buruzko ebazpena.

Puntu hori gai-zerrendan sartzeko botazioa egin da Udalbatzan, baina ez denez lortu apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu legegilearen 51 artikulua eskatzen duen gehiengo absolutua, gaia ez da ez aztertu ez botatu, eta mahai gainean geratu da.

* Aktan jasota gera dadin, hona hemen botazioaren emaitza: ZAZPI (7) boto gaia eguneko gai-zerrendan sartzearen alde, PSE-EE (5) eta EB-IU (2) alderdietako zinegotzienak, SEI (6) boto gai-zerrendan sartzearen kontra, EAJ-PNV (4) eta EA (2) alderdietako zinegotziena, eta BI (2) abstentzio, PP alderdiko zinegotziena.

Eta, beste gairik ezean, 11:15etan batzarra amaiturik, nik, idazkariak, alkate andrearen oniritziarekin, akta hau egiten dut, bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin.